

OSASUNEZ



ZAHARTU

Zuzendaritza eta koordinazioa: Populazioan Esku Hartzeko eta Osasuna Sustatzeko Atala, Osasun Publikoaren Institutua (OPI).

Egileak: Margarita Echauri Ozcoidi, M^a José Pérez Jarauta eta Pilar Marín Palacios.

Laguntzaileak:

Eugenia Ancizu (Txantreako Osasun Etxea)
Dolores Artajo (Tutera Ekialdeko Osasun Etxea)
María Artieda (Gizarte eta Osasun Plana)
Maite Ayarra (Uharteko Osasun Etxea)
Karmele Ayerdi (Oinarrizko Osasun Laguntzako Zuzendaritza)
Iosu Cabodevilla (San Juan de Dios Ospitalea)
Lázaro Elizalde (Osasuna Sustatzeko Atala. OPI)
M^a Jesús Erice (Ermitagañako Osasun Etxea)
Naiara Fernández (Altsasuko Osasun Etxea)
Lourdes Galdeano (Antzingo Osasun Etxea)
Pilar García (Arrosadiko Osasun Etxea)
Alain Giacchi (Tafallako Osasun Etxea)
Gurutze Goicoetxea (Altsasuko Osasun Etxea)
Presentación Goñi (Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua)
Gabriel Hualde (Osasuna Sustatzeko Atala. OPI)
M^a José Indaburu (Lesakako Osasun Etxea)
Arantxa Legarra (Barañaingo Osasun Etxea)
Socorro Lizarraga (Uharteko Osasun Etxea)
Carmen Litago (Lizarrako Osasun Etxea)
Vicente Madoz (Burlatako Adimen Osasuneko Zentroa)
Laurindo Miji (San Frantzisko Xabier Ospitale Psikiatrikoa)
Pilar Montero (Zaraitzuko Osasun Etxea)
Julio Moran (PAPPS)
Alicia Moreno (Tutera Ekialdeko Osasun Etxea)
Camino Oslé (Nafarroako Unibertsitate Publikoa)
Txaro Otxandorena (Altsasuko Osasun Etxea)
Inés Sáenz de Pipaón (Osasun eta Gizarte Plana)
Begoña Zabala (Emakumeen Elkarteak)

Administrazio lana: Mar Lainez (Osasuna Sustatzeko Atala).

Irudi eta diseinu grafikoa: Ana Goikoetxea.

Inprimaketa: Arc Space Graphic, S.L.

Finantzaketa: Osasun Publikoaren Institutua.

AURKIBIDEA

SARRERA.....pág. 3

ZAHARTZEAREN ERRONKA

HEMEN ETA ORAIN ZAHARTZE.....pág. 6-7

ZAHARTZE PROZESUA.....pág. 8-9

ALDAKETAK ONARTZEA.....pág. 10-11

HEMEN ETA ORAIN...ETA SEGI AURRERA.....pág. 12-13

ZAIN DEZAGUN GORPUTZA

BIZIMODU OSASUNTSUA.....pág. 16-17

MUGITZEA ETA ATSEDENA HARTZEA.....pág. 18-19

ZENTZUMENAK ZAINZEA.....pág. 20-21

*ERITASUNEI AURREA HARTZEA
ETA SENDATZEA*.....pág. 22-23

BURUA ETA EMOZIOAK ZAINDU BEHARRA

MEMORIA ETA PENTSAMENDUA.....pág. 26-27

EMOZIO ETA SENTIMENDUAK.....pág. 28-29

EGOERA ZAILAK.....pág. 30-31

ZAINDU ZURE INGURUA ETA GIZARTE HARREMANAK

HARREMANAK.....pág. 34-35

AISIALDIA ETA DENBORA LIBREA.....pág. 36-37

ZURE INGURUA ETA GIZARTEA.....pág. 38-39



Sortzen garenetik, denbora aurrera doa. Bizitzea hainbat etapa igarotzea da: haurtzarora, nerabezarora, gaztarora, heldutasuna... eta orain zahartzarora; etapa bakoitzak bere ezaugarri, ezintasun eta gorabeherak ditu.

Ez dago zahartzaroran sartzeko adin zehatzik. Zahartzea gure bizialdiaren zati handi bat hartzen duen prozesua da, aldaketa mantso, mailaz mailako eta unibertsalak biltzen dituena. Denedeni eragiten digu, baina bakoitzari modu batean.

Zahartzeko moduan mota askotako faktoreek dute eragina: faktore biologikoak, sozialak, ekonomikoak, generoa, heziketa... baita bizimodua eta bizitzan zehar hartzen diren erabakiak ere. Gizaki bakoitzak bere zahartze prozesuan eragin dezake.

Liburuxka honetan zahartzarora prestatzeko moduez arituko da, bizialdi hori norberaren esperientziaren ikuspegitik ulertu eta onar dezagun eta, aldi berean, gure gizarteak zahartzeaz duen ikuspegia ulertu ahal izateko. Hiru atal nagusi jorratuko ditugu, banaka-banaka, nahiz eta hirurak batera gertatzen diren:

- Gorputza: zahartze prozesuari loturiko aldaketa fisikoak.
- Buruaren eta emozioen inguruko alderdiak: bizipen eta esperientziak, autoestima, pentsatzeko moduak, zailtasunak...
- Norberaren ingurua eta gizarte harremanak: harremanetarako baliabide eta gaitasunak, gure ingurunea.

Horietako atal bakoitzean hiru ardatz proposatzen dira zahartzaroran hobeki bizitzeko: a) Aldaketak ezagutu eta onartzea; b) Bizialdi honek eskaintzen duenarekin gozatzea eta c) agertzen diren mugak menperatzea.

Lehenago edo geroago erabil badaiteke ere, argitalpen hau 60 urte inguruko pertsonen zuzenduta dago, zahartzaro osasuntsua prestatzeko adin egokia baita hori; izan ere, kantitatearen eta kalitatearen aldetik, zahartzarora gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari da gure bizitzetan.

Liburuxka honen bidez bizi-ohitura berri, konstruktibo eta osasungarriak sustatu nahi ditugu, nafar jendea osasunez zahar dadin. Horixe, bada, gure asmoa.

ZAHARTZEAREN ERRONKA



HEMEN ETA ORAIN ZAHARTZEA

Heldutasunetik zahartzarora igarotzeak zahartze prozesuari egokitzen joatea eskatzen du, bizimodu aktiboa izatea, aspaldiko ametsak berreskuratzea, proiektu berriak garatzea, gizarte gaietan laguntzea....

Oso esperientzia pertsonala

Zahartzeko modua ezberdina da pertsona batetik bestera. Hortaz, zahartzeko modu asko daude, nork berea baitu.

Batzuek modu positiboan hartzen dituzte aldaketak, beste batzuek modu negatiboan, eta batzuetan bi jarrerak tartekatzen dira.

Oro har, urte gehiago bizitzeko gogoia izaten da, osasuna eta ongi-zatea nahi izaten dugu, ongi bizi, ikasitakoa aprobetxatu, alaitasun eta umore onari eutsi... eta horrekin batera, gehienetan, erretiro-sarien eta diru-ahalmenaren kezka izaten da, gaitasunak galtzearen eta eritasunen, ezgaitasunen edo menpekotasunaren beldurra.

Gizasemeek eta emakumeek ez dute berdin eramaten

Gure belaunaldietan, gizasemeek eta emakumeek oso arau, eginkizun, eredu eta aukerabide ezberdinak izan dituzte. Horren ondorioz, ezberdintasunak sortu dira hainbat arlotan: etxeko lanen arduren banaketan, etxetik kanpo lan egiteko ohituretan, bikoteen bizimoduan, seme-alabekiko harremanetan, interes, beldur eta afizioetan, bizimoduan... eta horrek guztiak zahartze prozesuan eragina du.

Zahartzea aldabidean ari den gizarte batean

Gure gizarte honetan gero eta gehiago dira 65 urtetik gorakoak; zahartzaroko bizi-baldintzak hobetu dira; urte gehiago bizi da jendea eta bizipenak positiboagoak dira, gozatzeko eta garapen pertsonalerako ahalbide gehiago daudelako.

Dena dela, oraindik ere bada jendea zahartzarora narriadurarekin, kargarekin, eritasunekin edo botere-galtzearekin lotzen duena, betiereko gaztetasuna, edertasuna, indarra, azkartasuna eta emankortasuna esperientziaren, jakinduriaren, lasaitasunaren edo atsedeenaren gainean jartzen dituen.

Behar-beharrezkoa da gobernu, erakunde eta herritarrek gizarte goxoago bat eratzea zahartzeari begira, horretarako baliabide eta zerbitzuak eskainiz (dirulaguntzak, zahar-etxeak, etxez etxeko laguntza...) eta zahartzaroaren irudi benetakoagoa erakutsiz.

Gogoeta egiteko...



Zer da zuretzat zahartzea?.....

.....
.....

Ze ezberdintasun ikusten dituzu gure aitona-amonen, gurasoen (hots, gure bizitzan izan dugun erreferentzia) eta egungo zaharren zahartze prozesuetan? Aipatu alde onak eta txarrak. Aipa itzazu aldaketa horietan onartzeko zailenak eta errazenak direnak.....

.....
.....

Zure inguruko zaharrei begira jarrita, zerk adierazten du haiengan bizimodu aktiboa dutela?

.....
.....

Hona hemen zahartzaroari buruz entzun ohi diren hainbat esaldi. Zer iruditzen?

- Oraingo bizimodua gustatzen zait. Aurrerapen ugari ditugu, etxeak erosoagoak dira, askatasun eta komunikazio gehiago dago, bidaiak eta ateraldiak antolatzen dira. Beharbada, auzokoekin lehen zeuden harremanen falta sumatzen dut.
- Gizarte honetan beranduago zahartzen gara, disfrutatzeko aukera gehiago daude... baina planteatu behar duzu. Bestela, baztertzan zaituzte, are gehiago eritzen bazara edo bakar-bakarrik gelditzen bazara.
- Zahartzarora iritsi izanak pozten nau, baina lehengo zaharrak orain baino gehiago errespetatzen eta baloratzen ziren.
- Prentsak eta publizitateak badakite talde handia garela eta produktu asko saltzen ahal dizkigutela (kosmetikoak, bidaiak...), baina haientzat kontsumitzaile hutsak gara. Non aipatzen dira zahartzaroaren alde onak?

Zer eskaintzen digu gaur egungo gizarteak zahartze prozesua hobeki eramateko? Besterik erantsi nahi al duzu?

.....
.....
.....

ZAHARTZE PROZESUA

Zahartzearekin batera, lanak eta familiak biziki baldintzatu duten etapa batetik bizialdi lasaiago batera igarotzen gara, non presio eta beharkizun gutxiago dauden.

Aldaketa garrantzitsuak gertatzen zaizkigu, zahartzearen beraren eta beste faktore batzuen ondorioz: belaunaldien aldaketak, bizi estilo ezberdinak, bizipen, interes eta motibazio ezberdinak, eritasunak...

Aldaketa fisikoak

Gorputza aldatzen da poliki-poliki. Itxura fisikoa asko aldatzen da bizitzaren etapa batetik bestera, baina etapa berean ere pertsonak ez dira modu berean aldatzen. Zahartzaroen itxura fisikoari gutxiago eskatzen zaio eta horrek utzikeria ere ekar dezake.

Organismoa ez dabil lehengo moduan. Erritmoa gero eta motelagoa da. Energia ere ahultzen da. Gorputza ahulagoa da eta muga gehiago ageri dira.

Aldaketa hormonalak nabarmentzen dira, baina, aldi berean, emakumezkoen menopausiak eta gizasemeen gizonen hormonon galtzeak dakarkieten ezegonkortasuna gainditzen hasten da.

Burua eta emozioak aldatzen dira

Sentimendu lasaiagoak garatzen dira, bizia gozatzeko nahia izaten da, esperientziak erakutsitako jakinduria erabili, gizartearen presioak gutxitzen dira, seme-alabekiko erantzukizuna eta eskakizunak txikiagoak dira, nor bere buruari begiratzen dio berriz. Egoera horretan, autonomia izatea oso lagungarria gerta daiteke.

Adimenaren eta emozioen funtzioak lasaitzen dira, nahiz eta, osasuntsu egonda, hil arte ongi mantentzen diren.

Aldaketa sozialak

Bizitzeko moduan eta zahartzarora arte egiten ziren eginkizunetan aldaketa garrantzitsuak gertatzen dira: lanean erretiroa hartzeko ordua da, famili aldaketen ordua, gizonarekin edo andrearekin gehiago egoteko aukera dago, gizarte-harremanetarako denbora gehiago, lotura gutxiago, e.a.

Egoera positiboak gertatzen dira (denbora gehiago, proiektu berriak, gizarte-lanak egitea, bizimodu aktiboa...), baina baita esperientzia mingarriak ere (gurasoak, lagunak edo gizona/andrea hiltzea, ondokoak edo norbera eritzea.).

Gogoeta egiteko...



Adinean aurrera egin eta zahartzearekin batera, hainbat aldaketa gertatzen dira. Aipa itzazu atentzioa ematen dizkizutenak, gertatu zaizkizunak, gertatzen ari zaizkizunak... Zerrenda honetan agertzen ez diren aldaketak erantsi:

1. Aldaketak gorputzean:

Altueran behera egitea
Pisuan gora egitea edo berdina mantentzea
Gihar gutxiago izatea eta gantz gehiago
Sabelaldean gantza pilatzea
Zimurrak
Laranja azala agertzea
Digestio zailagoak
Malgutasuna galtzea
Gaitasun fisikoa ahultzea
Indarra galtzea

2. Aldaketak pentsatzeko edo bizitzeko moduan

Geure buruaren balorazioa aldatzea
Gutxiago axola dit nola ikusten nauten besteek
Ondokoek erakargarriak izaten segitzen dute
Ikasteko gaitasuna mantentzen da
Ezaupide praktikoa eta orokor gehiago ditugu
Gauza batzuetan arreta gutxiago jartzen da
Memoria apalagoa eta erantzuteko abiadura mantsotzen da
Gauzak ahazteko beldurra
Zarata handia dagoen lekuetan hitz egiteko zailtasunak
Antsietatea eta gauzeekin sobera kezkatzea

3. Aldaketak harremanetan eta bizitzeko moduan

Nire bizitzako lehentasunak aldatzen dira
Denbora gehiago izaten da nahi dudana egiteko
Gauzak seguru egiten ditut. Egoerak menperatzen ditut
Nire burua zaintzeko denbora gehiago
Gauzak egitea gehiago kostatzen da
Gauzak egiteko denbora gehiago behar da
Erretiroa hartzeak karga asko dakartza berekin
Gizaseme edo emakume gisa dagokigun presio soziala txikiagoa da
Erantzukizun gutxiago besteen aurrean (seme-alabak, lana)
Harreman pertsonal sakonak
Gizarte jarduerak

ALDAKETAK ONARTZEA

Zahartzeak aldaketak dakartza. Horrelakoa da bizitza. Baina, aldaketa horiek izanda ere, ez dugu geure burua abandonatu edo gutxietsi behar. Gure izateak, jakinduriak eta barneko edertasunak ez dute zerikusirik adinarekin.

Onarpena

Oro har, zaila izaten da aldaketak onartzea. Hasierako erreakzioak mota askotakoak izan daitezke: ustekabea, larridura, kasurik egin nahi ez izatea, beldurra... Pertsona batzuk desmoralizatzen dira eta, galtzen ari direna ikusita, tristetzen.

Aldaketak onartzea, aldaketa bakoitza zertan den eta zer dakarren poliki-poliki ulertzea, haien ondorio emozionalez jabetzea..., hori guztia oreka emozionala lortzeko eta egoera hobeki eramateko lagungarria da.

Norberaren bizitza kontrolatzea

Zahartze prozesuan, erabakitze ahalmena mantentzen da. Gaur egun, adineko jende askok independente eta burujabe izateko grina izaten dute, beren bizitzaren jabe izan nahi dute.

Garrantzitsua da bizitzan zer egin nahi den erabaki ahal izatea eta oinarrizko eginbeharrei erantzuteko gai izatea: norberaren zainketa, mugikortasuna, independentzia, diruaren erabilera, beste pertsonetiko harremanak, gizarte-bizitza...

Arlo fisikoan, buru-lanetan eta gizarte harremanetan bizimodu aktiboa izaten ahalegintzea lagungarria da zahartzaroan hobeki bizitzeko. Baina, horrez gainera, beharrezkoa denean, laguntza eskatzeko lotsa ere galdu behar dugu.

Zure baitatik

Pertsonen garapena ez da nerabezaroan edo gaztaroan bukatzen, ezta heldutasunera iritsitakoan ere, aitzitik, bizialdi osoan irauten du. Hortaz, zahartze prozesuan eta zahartzaroan ere garatzen segitzen dugu.


Hori horrela, zahartzea honako abiapuntu hauetan oinarritu behar da:

- Gure izaera bera; izan ere, gure nahi eta beharrak ezagutu behar ditugu, sentitu eta pentsatzen dugunetik abiatuta. Garrantzitsua da geure burua maitatzea, onartzea, estimatzea...
- Dagozkigun eskubideak. Batzuetan, zahartzaroan hobeki sentitzeko, beharrezkoa izaten da geure interesen alde jotzea (betiere besteenei kalte egin gabe) eta geure izaerari eustea. Errespetuz eta adeitasunez tratatuak izateko eskubidea dugu.
- Norberaren esperientzia, pilatu dugun ezagutza, jakinduria eta eskarmentua aprobetxatuz.

Gogoeta egiteko...



Zahartzeak aldaketak dakartza. Horrelakoa da bizitza. Marrazki hau ikusita, zer datorkizu burura?



Zeure buruaz duzun irudia errepasatu (zure itxura, zure pentsamoldea, zure baloreak, sentimenduak, afizioak, maite dituzun gauzak, zure gaitasunak.).

Haurtzaroa ekarri gogora, gaztaroa, 30 urte zenituenean, 40, 50... Zerk segitzen du berdin? Zer aldatu da?

Gertatzen ari zaizkizun aldaketa batzuk aipatu, positiboak zein negatiboak. Nola hartu dituzu?

Aldaketa gehiago etorriko dira. Izan ere, beti aldatzen ari gara. Aldaketak hobeki eramateko ideia batzuk eman.

HEMEN ETA ORAIN... ETA SEGI AURRERA

Gizakia, hots, gizaseme eta emakume bakoitza, nor bere bizitzaren protagonista da, etapa guztietan, baita zahartzaroan ere.

Datozkigun aldaketa eta garai berriak ulertzeaz gainera, etorkizunean zer bide ditugun eta nola bizi nahi dugun pentsatu behar dugu.

Eta honetan, oro har, balorazioa eta aurreikuspenak aldatzen dira. Pertsona batzuek iraganari eusten diote; beste batzuentzat, berriz, orainak berebiziko garrantzia hartzen du, hots, orain eta hemen daukagunak, eta, oro har, etorkizunak lehen ez bezalako pisua hartzen du.

Orainaldian bizi

Iraganak gero eta garrantzi handiagoa hartzen du. Lehengo bizipenak pisuak dira. Gure bizipenek zer garen erakusten digute eta horrek segurtasuna ematen digu. Iragana baliatu behar dugu, baina hartan itxi gabe. Iraganak orainaldia hobeki bizitzeko balio behar du.

Iraganetik abiatuta, garrantzitsua da orain eta hemen bizitzea, alegia, orainaldiari gidatzen uztea, gauzak noiz aldatuko diren, egoera noiz zuzenduko den, itxaron gabe.

Orain eta hemen gozatzeko, zentzumena, intuizioa eta umore ona behar ditugu, gure emozioak eta sentimenduak ezagutzea, gauzekiko interesa mantentzea, mota askotako jarduerak egitea, esperientzia berriak egitera ausartzea...

Bizi proiektuarekin segitu

Garai hau ezin egokiagoa da geure buruari hurrengo urteetan zer egin nahi dugun galdetzeko, eta proiektu horiei ekiteko, horrela bizi proiektuan aurrera eginen baitugu. Gauza batzuk mantenduko dira eta beste batzuk aldatuko.

Ireki beharreko ateak eta nolako sarrailak dituzten ezagutuz gero, kasuan-kasuan aurrera egiteko giltzak prest izaten ahal ditugu. Giltzak atea irekitzen ez badu, mugitu egin behar da koxka aurkitu arte. Batzuetan, ordea, atea ezin dela ireki onartu beharko dugu.

Kontua da aldatu nahi duguna aldatzea, aldatzerik badugu, eta aldaezina dena aldaezina dela onartzea, biak ongi bereiziz.

Gogoeta egiteko...



Testu eta marrazki hauek orainaldia bizitzea eta etorkizunerantz aurrera egitea dute oinarrian.

Orainaldia gozatu.


Gure bizitzako funtzio guztien atzean bada plazerren bat, atseginen bat.

Aurrera eta atzera begira.

Askotan orainaldiaz gozatzeko aukera paregabea galtzen dugu, iraganarekin edo etorkizunarekin kezkatuegiak gaudelako.

Ohikoa da gure energiak erdipurdi utzi ditugun gauzetara bideratzea, paseatzeak edo egunean egunekoak eskaintzen dizkigun plazerretara baino gehiago.

Zoriontasuna aurkitzea.




Galderak:

Testu-marrazki horiek ikusita, zer datorkizu burura?

Egunerokotasunetik zer gustatzen zaizu? Egunean egunekoa disfrutatzen duzu?

Orainaldian bizitzeak ez du esan nahi proiektuak alde batera utzi behar direnik. Pentsa ezazu zer den inportantea zuretzat, zer proiektu nahi zenituzkeen...

ZAIN DEZAGUN GORPUTZA



BIZIMODU OSASUNTSUA

Adin-tarte guztietan bizimodu osasuntsua izatea gomendagarria bada ere, biazialdi honetan bereziki garrantzitsua da osasunari erreparatzea eta ongi sentitzea.

Elikadura. Elikadura osasuntsu eta orekatua behar da, hots, denetik jan behar da, behar adina, eta ura edan. Adinean aurrera egin ahala, jateko gogoia joaten ahal da poliki-poliki, baita edateko gogoia ere.

Fruta eta barazki asko jan behar dira, ogia, zerealak, pasta, arroza (integralak badira hobe), esneki gaingabetuak (jogurta, esnea, gazta), arraina, e.a. Gantz gutxiago jan behar da, haragi gantzatsu, hestebete, jaki azukredun, opil eta gantz gutxiago. Ez dago garbi gehigarri bitamini-koak edo bestelakoak hartzea osasunez zahartzeko lagungarria ote den.

Higienea. Egunero dutxatzeak eta azkazalak eta oinak txukun izateak hobeki sentiaraziko zaituzte.

Sexualitatea. Zahartzaroan seme-alabarik edukitzea ezinezkoa den arren, sexualitateak ez du adin mugarik. Gizon-emakume sexudunak gara, elkar erakartzeko eta elkarrekin maitemintzeko gai, biazialdi osoan.

Ondo-ondoko kontaktua, besarkaden, musuen eta fereken bidezko sexualitatea eta koito bidezko harremanak oso garrantzitsuak dira zahartzaroan ere. Harremani eutsi behar zaie eta elkarrekin gozaten segitzeko modua bien artean aurkitu behar da.

Batzuetan, gizonezkoei gehiago kostatzen zaie erekzioari eustea edo orgasmora iristea. Baginako lehorrari aurre egiteko, emakumezkoek lubrifikatzaile bat erabiltzen ahal dute. Preserbatiboa HIESari eta sexu bidezko beste eritasun batzuei aurre egiteko bide egokia da.

Erlaxazioa. Biazialdi honetan, besteetan bezala, eguneroko egoera batzuek tentsioa ekarri ohi dute. Erlaxazioa, arnasketa eta masajea tentsio fisikoa deskargatzeko bide egokiak dira.

Alkohola. Baso pare bat ardo edo garagardo hartzea osasungarria izan daiteke, baina gehiegi edatea edo graduazio handiko alkohola edatea, kaltegarria.

Gainera, tabakoa erretzen baduzu, **Erretzeari uztea** osasuna hobetzeko hartzen ahal duzun neurrietatik onenetarikoa da (hobeki hartuko duzu arnasa eta bihotzeko eritasunak eta minbizi batzuk izateko arriskua gutxituko da).



Gogoeta egiteko...



1. Azkeneko 24 orduetan jan duzuna apuntatu.....
.....
.....

2. Aurreko orrian agertzen diren aholkuak errebisatu.....
.....
.....

3. Aztertu ezazu jateari begira zerk eta nola eragiten dizun.....
.....
.....

4. Pentsatu jateko ohituretan zein aldaketak egiten ahal dizun on. Erabakiak hartu.....
.....
.....

5. Zerbait aldatuz gero, aldaketa bera bezain garrantzitsua da aldaketei eustea. Zer iruditzen zaizu esaldi hori?.....
.....
.....

6. Bizimodu osasuntsuagoa izateko eta hobeki bizitzeko, zer gehiago egin dezakezu?.....
.....
.....

7. Ondoren, erlaxazio ariketa bat erakutsiko dizugu, nahi izanez gero tentsio uneetan erabiltzeko. Helburua gorputzeko gihar guztiak aldi berean tenkatzea da, 5 segundo:

- Ukabilak itxi
- Besoak bildu eta ukabilak sorbalda aldera ekarri
- Sorbalda uzkurdu
- Burua atzera eraman (besaulkiaren kontra, baldin badago) eta garondoa tenkatu
- Begiak itxi indarrez
- Ezpainak eta hortzak itxi indarrez
- Hankak luzatu eta oinak lurretik altxatu, sabelaldeko giharrak tenkatzeko
- Arnasa hartu sakon

MUGITZEA ETA ATSEDENA HARTZEA

Bizimodu osasuntsua izateko eta osasun egoera onean mantentzeko ezinbestekoa da mugitzea eta atsedena hartzea.

Ariketa fisikoa. Adinean gora egin ahala, gero eta nabarmenagoak dira ariketa fisikoaren ondorio onak. Gutxienez, ariketa hauek egin beharko lirateke:

Egunero, 30 minutu ibiltzea, arin samar.

Astean bitan, indarra eta malgutasuna lantzeko ariketak.

Gernu-inkontinentzia. Batzuetan, esfortzuak edo mugimendu zakarrak egiten ditugunean, arin ibili edo laster egiten dugunean, gernuak ihes egin dezake. Horrelakoetan, osasun etxean aholkua eskatu. Badira ariketa batzuk gernu-ihesak kontrolatzeko.

Loa eta atsedena. Behar beste atsedena hartu behar da eta, ahal bada, 7-8 ordu lo egin, nor bere beharrak dituela kontuan hartuta.

Adinarekin, gero eta zailagoa izan daiteke lo erregularra eta jarraia izatea. Gauetan gero eta gehiagotan esnatzen gara eta, horrelakoetan, gero eta gehiago kostatzen zaigu loak hartzea.

Loa arinagoa dugula onartuz gero, aiseago kenduko dugu kezka hori burutik, eta egoera hobetzeko balioko digu. Lo egiteko modu asko daude, gorputza eta gogo errekuperatzeko modu ugari.

Hona hemen atsedena hartzeko eta lo egiteko aholku lagungarri batzuk:

- Egunero ordu bertsuan oheratzea eta jaikitzea.
- Isiltasuna (ez da nahitaezkoa erabatekoa izatea), oheratu aurretik gela aireztatzea, 18-20°-ko tenperatura izatea gelan eta iluntasuna (ez da nahitaezkoa erabatekoa izatea).
- Somier eta koltxoi egokiak, burua zertxobait makurtzeko moduko burukoa, ohe-jantzi egokiak eta gorputz jarrera erosoak.
- Lo egin aurretik egunero gauza berberak egitea: irakurri, musika entzun, ur beroko bainua hartzea (15 minutukoa gutxienez).
- Egunean zehar, atsedena hartzeko geldialdiak egitea.
- Janari bizigarriak saihestu (kafea, kakaoa, tea, alkohola, tabakoa), arratsaldeetan batez ere, eta ez afaldu gehiegi. "Bazkaldu ondoren lasaitasuna eta afaldu ondoren paseoa" diote.
- Oheratzeko ordura lasai iristea, ahal delarik, tentsio fisikoa deskargatuta.
- Burura pentsamendu positiboak ekartzen saiatzea, hots, momentu atseginak, eta, ahal bada, kezkatzen gaituzten gaiei buruz ez hitz egitea gauetan. Hobe duzu hori hurrengo egunerako utzi.

Gogoeta egiteko...



1. Gogora ekarri azken astean egin duzun ariketa fisikoa

.....

.....

.....

2. Gogoan izan aholku hauek. Gutxienez:

- Egunero 30 minutu ibili, arin samar.
- Indarra lantzeko ariketak egin (8 aldiz bakoitza)

<p>Aulki batean eserita, bizkarra tente, oina lurretik altxatu zangoa luzatu arte Bestearekin errepikatu.</p>	<p>Aulki batean eserita, bizkarra tente, bi zangoak batera eta bilduta altxatu.</p>	<p>Oinak hormatik bereizita eta eskuak sorbalden altueran ditugula, besoak bildu eta luzatu.</p>
		

- Malgutasuna lantzeko ariketak (ariketa bakoitzeko posizioari eutsi 8 kontatu arte)

<p>Eserita, soin-enborra makurtu eta aurrerantz erortzen utzi, eta burua eta lepoa erlaxaturik</p>		<p>Eserita, eskuekin zango bat hartu belan txokotik, bildu eta altxa bular aldera. Beste zangoarekin errepikatu.</p>
		
	<p>Burua mugitu, belarriarekin sorbalda ukituko bagenu bezala. Beste aldearekin errepikatu.</p>	

3. Zure eguneroko bizitzan ariketa fisikoa egiteko denbora aurkitu behar duzu (denbora pixka bat hasieran, eta tarte hori handitu). Horretarako, zer aldatu beharko zenuke? Ariketa egiteak ekarriko lizkizukeen gauza onak eta zailtasunak idatzi.....

.....

.....

.....

4. Inportantea da, halaber, hasitako ariketa egiten segitzea. Nola egin ariketak egiten segitzeko?

.....

.....

.....

ZENTZUMENAK ZAINTEA

Zentzumenak hainbat eta hainbat bide irekitzen dizkigute. Haiei esker:

- Inguruko munduarekin harremanetan jartzen gara, pertsonekin eta inguruarekin harremanetan.
- Momentu eta jarduera atseginak izaten ditugu: maite dugun norbait ikustea, musika atsegina entzutea, janari goxo bat, ikuspegi eder bat.
- Buruko gaitasunak mantentzen ditugu (gai hau aurrerago garatuko dugu memoria eta pentsamendua lantzen diren atalean).

Poliki-poliki aldaketak agertzen dira:

Ikusmena. Ikusmenaz gozatzeko denbora gehiago izaten da, lasaiago gainera (irakurri, leihotik begiratu, pelikulak ikusi, museoak...). Horrekin batera, enfokatzeko gaitasuna galtzen da poliki-poliki. Berrogei urtetik aurrera, ohikoa izaten da irakurtzeko betaurrekoak behar izatea, argi gehiago behar izaten da lehen ongi ikusten genuena ikusteko.

Entzumena. Berrogeita hamar urtetik aurrera, entzumena ahultzen ahal da, batez ere soinu zorrotzak entzuteko gaitasuna eta irrati edo telebista piztuta dagoenean edo inguruan halako murmurioa dagoenean gauzak ulertzeko gaitasuna.

Dastamena. Gure dastamena hobeki ezagutzen dugu eta zapore ugariz gozatzeko aukera izaten da. Tabakoa erretzen baduzu, dastamena ahultzen da, baina erretzeari utziz gero, errekuperatu ohi da. Litekeena da, bestalde, jende zaharrak jaki batzuen zaporea gutxiago sumatzea. Horrelakoetan, ohikoena izaten da jakiei gatz gehiago ematea, baina gorputzak ez du horren beharrik.

Azala. Ukimena, azala, ferekak, gizakiaren oinarritzko beharretariko bat bideratzeko tresnak dira, alegia, pertsonetikiko, gauzekiko, animaliekiko kontaktua.

Kremek azala hidratatzen laguntzen digute, baina, hala ere, azalak elastikotasuna galtzen du, zimurrak eta tolesdurak agertzen dira...

Hona hemen zentzumenen inguruko aholku orokor batzuk:

- Zentzumenak landu eta erabili behar dira: bizi eta osasun iturri dira, harreman eta komunikaziorako tresna.
- Zaindu behar dira, kalterik har ez dezaten. ez bortxatu ikusmena, zarata handiak saihestu, aho-hortzak ongi garbitu, azala hidratatu...
- Azterketa medikoak pasatu aldian behin: osasun etxean galdetu, dentista-rengana joan.
- Behar diren konponketak egin eta eskura dugun teknologia erabili: betaurrekoak, ordezko hortzak, audifonoak, argi egokia, e.a., beharrezkoak direnean.

Gogoeta egiteko...



1. Zentzumenak lantzea gure ahalmenen arabera erabiltzea da. Pentsa ezazu zenbat gauza egiten ahal dituzun zentzumenei esker (askatu zure irudimena):

Ikusmena. Zerrenda batean apuntatu ikusi nahi zenituzkeen gauzak (pertsonak, tokiak, pelikulak, antzerki-lanak...)

.....
.....

Entzumena. Zerrenda batean apuntatu entzun nahi zenituzkeen gauzak (pertsonak, kantikak, soinuak...)

.....
.....

Dastamena. Zerrenda batean apuntatu dastatu nahi zenituzkeen gauzak.....

.....

Usaimena. Zerrenda batean apuntatu usaindu nahi zenituzkeen gauzak.....

.....

Ukimena. Zerrenda batean apuntatu ukitu nahi zenituzkeen gauzak.....

.....

Horietako bat aukeratu eta egin

2. Zure barrenerako, erantzun itzazu ondoko galderak:

Letra motaren bat edo kaleko kartelen bat gaizki irakurtzen duzu?

Gutxiago entzuten duzu? Zure etxekoei edo laguneiei galdetu.

Oinetan azkura izaten duzu? Oinak larrutzen zaizkizu? Crema hidratanterik erabiltzen duzu?

Aho-hortzak nola dituzu?

Zalantza edo zailtasunik baldin baduzu, osasun etxean eskatu laguntza.

ERITASUNEI AURREA HARTZEA ETA SENDATZEA

Eritasunen bat agertzen bada, inportantea da jakitea zer dugun, gaitz hori onartzea eta kontrolatzen saiatzea. Horretarako osasun etxearen laguntza duzu. Gainera, gaixotasun batzuei aurrea hartzen ahal zaie:

Bihotzeko eritasun batzuei eta minbizi batzuei aurrea hartzeko:

Bizimodu osasuntsua eraman (lehenago aipatu duguna)
Eguzkiarekin kontuz ibili (babesteko kremak erabili beti)
Azalean gero eta handiagoa den edo kolorez aldatzen den orban edo orinen bat agertzen bazaizu, kontsultara jo.
Zure adinekoendako prebentzio programetan parte hartu.

Bereziki inportantea da jan ohitura osasuntsuak izatea, ariketa egitea eta, erretzen baduzu, tabakoa uztea.

Istripuen prebentzioa. Zahartzaroko istripurik ohikoenak trafiko istripuak dira (gidari gisa, bidaiari gisa, oinezko gisa) eta etxean nahiz kanpoan gertatzen diren erorikoak.

Gorputz jarrerak. Garrantzitsua da jarrera egokiak hartzea (eseritzean, makurtzean, arropak lisatzean .), gehiegizko kargak ebitatzea eta pisu gehiegi ez izatea, hezurren giltzaduretan minik ez hartzeko. Hobe da, gainera, denbora luzea ez ematea zutik edo eserita.



Txertoak. Ona da gripearen aurkako txertoa udazkenean hartzea (zure osasun etxeko kanpainarekin batera), batez ere bihotzeko edo giltzurrunetako eritasunen bat baldin baduzu, diabetesa, edo 65 urte-tik gorakoa bazara. Era berean, tetanokonstrako txertoa 10 urtean behin hartzea gomendatzen da.

Sendagaiak. Sendagaiak hartzen badituzu:

Behar den dosia hartu eta behar den denboran. Sendagaiaren inguruko oharra, nola eta noiz hartu, idatziz emateko eskatzen ahal duzu.

Sendagaia iraungitzeko datari begiratu.

Berotik eta hezetasunetik babestu eta ez pilatu.

Dudaren bat baldin baduzu, osasun etxean edo farmazian galdetu.

Gogoeta egiteko...



1. Zer egiten duzu zure osasuna zaintzeko?

.....
.....

2. Prebentzio neurri hauetatik zein egiten dituzun adierazi.
Besteak ere hartzea ez al da gomendagarria?

Bihotzeko eritasunei eta minbizi batzuei aurrea hartzeko

Elikadura osasuntsua

Ariketa fisiko erregularra

Tabakoa erretzeari uztea

Kontsulta ginekologikora joan

Zure adinekoendako prebentzio programetara joan

Istripuen prebentzioa

Bide segurtasuna: errepidea oinezkoendako pasabidetik igaro eta argi berdea dagoela, igaro aurretik ezker-eskuin begiratu beti, arretaz gidatu, segurtasun-uhala erabili, zapata erosoak jantzi, zure neurrikoak eta irristagaitzak, izotza badago arreta handiagoa jarri, e.a.

Segurtasun neurriak etxean. Etxebizitza moldatu, gero eta seguruagoa izan dadin (zaharberritzeko obrekin batera...):

- zoruak: alfonbretan ez irristatzeko materiala jarri, zoruetan argizaririk ez eman.
- eskailerak: eskubandak, ez irristatzeko zerrenda jarri eska-loien ertzetan, argi egokia...
- bainugela: bainuontziaren zoruan ez irristatzeko materiala jarri, dutxak lurraren mailan jarri, barrak, dutxarako eserlekuak, kanpora irekitzeko atea...
- Argiak: etengailuak eskura izan, argi egokia izan toki guztietan.

Egunero erabiltzen diren gauzak eskura jarri, eta gauzak hartzen saiatzeko ez igo aulkietara.

Gorputz jarrera egokiak. Zure gorputz jarrereri erreparatzen al diezu?

Txertoak. Gripea eta tetanosa.

Sendagaiak egoki erabili. Gogora ekarri zenbat sendagai hartzen dituzun. Den-denak behar dituzu?

BURUA ETA EMOZIOAK ZAINDU BEHARRA



MEMORIA ETA PENTSAMENDUA

Zahartzeak memoriari eta pentsamenduari eragiten die, baina ez horrenbeste. Gaur egun frogatuta dago zahartzearekin batera:

- pertsona batzuen buru gaitasunak ez direla apenas murrizten eta beste batzuenak, berriz, aiseago ahultzen direla. Izan ere, zahartzeko modu asko daude.
- osasun ona izanez gero, ez da aldaketa handirik sumatzen zahar-zaharra izan arte. Badira pertsona batzuk hil arte ongi moldatzen direnak. Eritasun batzuek buruaren funtzionamenduari eragiten diote.

Egunerokoa

Arreta pixka bat jarriz gero, eguneroko bizitzarako ez dugu arazorik izanen; aitzitik, adinean aurrera egin ahala hobeki biziko gara, harturiko esperientziari esker.

Gainerako adin guztietan bezala, arreta handiagoa jartzen dugun heinean gauzak aiseago gogoratuko ditugu. Adinean gora egin ahala, gauza batzuekiko interesa galtzen da eta beste gauza batzuekin, berriz, interes handiagoa izaten dugu, hau da, lehentasunak aldatzen dira.

Presaka ibiltzeak, interesa galtzeak, kezkek, antsietateak, nekeak, modu mekanikoan jokatzek... horrek guztiak arreta finkatzea galarratzen digu eta gauzak memorian desegoki erregistratzea.

Memoria galtzea

Egoera batzuek arreta handiagoa jartzea eskatzen dute; izan ere, buruak gehiago lan egin behar du eta memoriaren hondo-hondoan gordeta dagoen informazioarekin modu egokian lotu. Adinean aurrera egiten dugun neurrian, lan hori zailagoa egiten zaigu.

Atentzioa, arintasuna, buru malgutasuna eta zorroztasuna galtzen ahal dira poliki-poliki. Arrazoibide egokiak egiten dira, baina gehiago kostatzen zaigu gauzak ikastea eta ikasitakoa aiseago ahazten da.

Batzuetan, zailagoa izaten da arreta toki batean baino gehiagotan jartzea edo bildutako informazioa berreskuratzea, denbora gehiago behar izaten da informazioa prozesatu eta berrantolatzeke, e.a.

Adinari lotutako memoria galtze guztiak Alzheimerri edo dementzia prozesuei lotuta ez badaude ere, zerbait ahazten zaigunean normala da horren inguruko beldurra edo zalantzak izatea. Horrelakoetan, osasun etxean kontsultatzen ahal duzu.

Burua, gorputza bezala, mugiarazi daiteke.

Gogoeta egiteko...



1. Zer egiten duzu buru osasuna, zure ongizatea, zaintzeko?

.....
.....

2. Bizimodu aktiboa izatea, ohitura atseginak eta errutinatik kanpoko esperientziak tartekatzen dituen, osasungarria da eta buruko gaitasunei bere horretan eusten laguntzen du. Hona hemen burua egoera onean kontserbatzeko ariketa batzuk:

Gauzei behatu: begiratze hutsetik ikustera pasatu, gauzei arraz behatu.

Aditu: entzuteaz gainera, saiatu gauzak aditzen, ulertzen.

Irudikatu: gogora ekarri gauza eta oroitzapen atseginak.

Arreta jarri: zaudenean egon, arretaz.

Gauza garrantzitsuak garrantzi gabekoetatik bereizi.

Gogoeta egin entzuten ari garenaren inguruan.

Bost zentzumenak erabili: ikusmena, ukimena, entzumena, dastamena eta usaimena.

Gauzak apuntatu, oharrak egin.

Egunero 5 minutu eman, egunean egin duzuna gogora ekartzeko.

Egunkariko artikulu bat irakurri. Gero, gogora ekarri.

Entzundako berriak komentatu.

Hitz gurutzatuak, asmakizunak...

3. Bost zentzumenak lantzeko ariketak:

• Goizean eta gauean egiteko ariketak:

Begiak itxita dutzatzea.

Arropa aukeratzeko, dastamena erabiltzea, besterik ez.

Hortzak beste eskuarekin garbitzea.

Harreman afektibo-sexual egokiak izaten saiatzea.

• Alde batetik bestera ibiltzen zarenean egin ditzakezun ariketak:

Usainak eta soinuak aditu

Betiko bidea aldatu

Topatzen zaren pertsonekin adeitasunez jokatu

• Etxean, lantokian:

Gauzak tokiz aldatu (arreta handiago jartzea eskatuko dizu horrek)

Jarduera bakoitza bukatutakoan, atsedena hartu, ibili pixka batean

Zentzumenak erabili: usaindu, begiratu, aditu...

Ez egin beti gauza bera eta modu berean

EMOZIO ETA SENTIMENDUAK

Zahartzean, bizitzako beste aldietan bezala, emozio eta sentimenduei esker gure barrenean zer gertatzen ari den jakiten ahal dugu, alegia, ondoan dugun pertsonak edo gertatzen zaigun egoera batek norainoko garrantzia duen guretzat.

Baina nondik-nora doaz nire sentimenduak?

Bizialdi honetan, oro har, gure sentimenduak etorkizunari begirako aurreikuspenei lotuta daude, zahartzaroa nola ikusten dugun, zer espero dugun.

Bestalde, sentimenduak norberaren izaeraren arabekoak dira: nola ikusten dugun geure burua, noraino maite dugun, bizitzari eta egunerokotasunari nola egiten diogun aurre, familian ditugun eginbeharrak.

Gainera, momentuko egoera edo gertakizunei lotuta daude (triste edo alai, mingarria edo atsegina) eta bizitzan izandako bizipen atsegini edo desatseginei.

Zahartzaroan ez da galtzen gauzekin gozatzeko ahalmena, baina egia da pertsona batzuek gauza atsegini gutxiago izaten dituztela eta egoera zail gehiago gertatzen ahal direla.

Sentimenduak nola zaindu

Sentimenduak sentitu behar ditugu, ezagutu, onartu, horixe baita orain bizitzen ari garena.

Sentimenduak zaintzea, halaber, denbora aurrera doala onartzea da, zahartzera eta aldatzera ausartzea, aldaketa hori onartzea. Gauza atseginak bizitzea eta, horiekin batera, gertakizun tristek ere bai.

Eta bizitzari begiratzeko ikuspuntua aldatzea. Benetan, gauzak nik ikusten ditudan bezala dira? Munduari modu positiboagoan begiratzeko beste modurik al da? Nola dago botila? Erdi-betea ala erdi hutsik?

Horrez gainera, gure eguneroko bizitzan atsegina, ongizatea, poza, bakea, umorea edo lasaitasuna dakarkiguten ahalik eta momentu eta gauza txiki gehien sartzen saiatu behar dugu.

Batzuetan, oso lagungarria izaten da gure emozio eta sentimenduak konpartitzea.

Pertsona batzuentzat ona izan daiteke denbora piska bat ematea aztertzeke zer egin dezakeen positiboagoa eta baikorragoa izateko.

Gogoeta egiteko...



Zer esan nahi dute zuretzat hitz hauek: emozioa, sentimenduak?.....
.....
.....

Emozioa eta sentimenduak noiz agertzen diren ohartzen zara?.....
.....

Sumatzen dituzu?.....
.....
.....

Besteen aurrean adierazten dituzu? Horietaz hitz egiten duzu?.....
.....

Emozioak erabiltzeko, ona izaten da:

Sentimenduak sumatzeko eta haietaz gozatzeko baime-na ematea geure buruari.

Nolako emozioa edo sentimendua dudan identifikatzea: beldurra, izua, haserrea, tristura, poza, atsegina...

Sentimendu hori zerk eragin duen jakitea

- egoera hori aztertzea eta ikustea nola interpretatzen dudan...
- Zerk eragin dit sentimendu hori? Egoera horrek? Nola interpretatzen dut?
- Egoera hori beste moduren batean ikusten ahal da? modu positiboagoan?

Nire sentimenduak horrelako egoeretan egiten dudana-rekin lotzea:

- Zeri erantzuten diot, egoerari berari edo egoeraz egiten dudan interpretazioari?
- Eta gertatu dena beste moduren batean ikusiko banu?

Nire emozio edo sentimenduekin zer egin erabakitzea: neuretzat gorde edo jendeari adierazi.

EGOERA ZAILAK

Eta honetan, besteetan bezala, badira hainbat eta hainbat egoera, eginkizun eta gertaera positibo, atsegina eta ongizatea sortzen dituztenak. Horrekin batera, ezinegona eta ongieza dakartzaten bizi-pen garrantzitsuak ere gertatzen zaizkigu.

Gertaera positiboek berebiziko balioa dutela onartuta ere, atal honetan egoera zailak aztertuko ditugu, guri edo ondoko bati gertatzen zaizkienean, egoerari aurre egiteko baliabide pertsonalak baditugula ikasteko eta horretarako prestakuntza hobea izateko.

Egoera zailak, besteak beste, honako hauek izan daitezke:

Zahartze prozesua bera. Zahartze prozesuak berak hainbat aldaketa dakartza, gauza batzuk irabazten dira eta beste batzuk galtzen. Ez da samurra izaten galtzen dena onartzea, eta pertsona batzuek itxura-aldaketagatik sufritzen dute.

Erretiroa. Erretiroa hartzeko gogoia, atsegina edo desatsegina lan motaren araberakoa da, lanak zer ematen eta zer kentzen digun aztertuta. Batzuetan, ez ditugu ongi ezagutzen gure bizi-pozak. Erretiroa hartzea nahitaezkoa izateak ere eragina du honetan guztian.

Litekeena da, hasieran, euforia aldi bat igarotzea: "Lanetik libre... gauza pila bat egiten ahal ditut orain."; baina errealitatea onartzen jakin behar da, bizi-ohitura atseginak sortu eta bizimodu berriarekin gozatu.

Galera ekonomikoak: erretiroa hartzeak, bakarrik gelditzeak edo beste inguruabar batzuek dirusarrera gutxiago izatea ekar dezake eta, horrenbestez, baliabide gutxiago eta zailtasun gehiago izatea.

Aldaketak familian: hauek dira nabarmenenak:

Aita edo ama gisa erretiroa hartzeko ordua ere iristen da poliki-poliki, seme-alabekiko ardurak gutxiago baitira, amatxi edo aitatxi bihurtzen gara.

Denbora gehiago izanda, gizonarekin edo andrearekin denbora gehiago egoteko aukera dugu, etxeko lanen banaketa aldatzeko aukera, e.a.

Eritasuna eta heriotza. Ohikoa da inguruko eritasunak ondo-ondotik bizitzea (aita, ama, andrea/gizona, adiskideak, seme-alabak). Maite ditugun pertsonak hiltzen dira eta geure heriotzari buruz ere pentsatzen hasten gara. Bizitza mugatua dela eta heriotza errealitate bat dela ikusten dugu eta hortaz ohartzen gara.

Gogoeta egiteko...




Bizitzako momentu zail eta gogorretan emozio eta sentimendu ugari bizitzen ditugu (tristura, beldurra, ezinegona, lasaituak, bakardadea, errua.), emozio eta sentimendu bizi-biziak batzuetan, eta horrek beldurra ere sortzen ahal digu.

Azter itzazu esaldi hauek. Lagungarriak izan daitezke:

- Egoerak onartu, eta sentitzeko beldurrik ez izan, zeinahi delarik sortu dizun sentimendua. Zeure burua onartu, maitatu eta gehiago estimatu. Zeure buruari modu positiboan begiratu, tolerantziaz, umorez eta maitasunez.
- Denbora eman gauzei. Gauza bakoitzak bere denbora behar du, gauza txikienetik handienera.
- Jendearen laguntza onartu. Konfiantzazko norbaitekin hitz egiteak eta gure sentimenduak adierazteak on egiten ahal digu.
- Tentsio fisikoa deskargatu.
- Momentu edo eginkizun atseginak sartu zure bizitzan.
- Bizimodu osasuntsua eraman.
- Batzuetan, lagungarria izan daiteke egoera lasai aztertzea: Egoera aztertu eta ongi finkatu zer gertatzen zaizun. Pentsatu egoera horretan zer egin dezakezun. Egiten ahal duzun horretan, ze alternatiba dauden aztertu. Alternatiba horietatik zer egin nahi duzun erabaki. Egin nahi duzuna gauzatzeko plan bat prestatu.
- Zeure buruarekin konfiantza izatea eta bizitzen segitzea. Besteek laguntzen ahal digute.

ZAINDU ZURE INGURUA ETA GIZARTE HARREMANAK



HARREMANAK

Zahartzeko prozesuaren barrenean, garrantzi handia du harreman pertsonalen eremuak:

Harremanak zahartzaroan

Zahartzaroa isolamenduarekin lotzen duten irudiak gorabehera, bizialdi honetan harreman asko mantentzen dira, batik bat andrearekin/gizonarekin eta familiarekin (seme-alabak, bilobak, beste ahaide batzuk), baina baita lagunekin edo auzokoekin ere.

Harreman horietan gauza asko berdinak dira adin guztietan: segurtasun emozionalaren garrantzia, errespetua eta komunikazioa, lotura afektiboak, harreman guztietan agertu ohi diren liskarrak...

Adin honetan harreman aberasgarriagoak garatzeko aukera dago, "inor besteren menpe egon gabe". Baina horretarako borondatea eta ahalegina behar dira. Batzuetan zaila da eta laguntza eskatu behar izaten dugu.

Ahal den neurrian, lagungarria da gu baino gazteagoa den jendearekin harremanak izatea eta beste belaunaldi batzuen aholkuak adi entzutea.

Kalitateko harremanak

Zahartzearekin, geure harremanetan dagokigun tokia garbiago ikusten dugu, gizon-emakume bakoitzak atzean daraman historia osoa ekartzen baitu berekin.

Harremanak izateko modua bizi osoan izan ditugun gaitasun eta esperientziekin lotuta dago, bai halaber, orain aukeratzen dugun bidearekin. Hona hemen kalitateko harremanen eskema:



"Gogoak agintzen didana" esan beharrean, zahartzaroan ere, ezinbestekoa da lagun urkoa onestea (bestea den bezalaxe onartzea), bestearen tokian jartzeko gauza izatea eta norberaren baitatik komunikatzea...

Gogoeta egiteko...



Beti izanen da maite ditugun pertsonetikiko harremanak hobetzeko modua. Hona hemen komunikazioa hobetzeko zenbait aholku.

1. Aztertu eta ikusi zure harremanatarako baliagarriak ote diren.

- Momentu guztiak ez dira berdinak komunikaziorako. Intereseko zerbait baldin baduzu norbaitekin hitz egiteko, momentu eta leku egokia aukeratu.
- Komunikazio egokia izateko, hitz egiteko eta entzuteko jarraera egokia behar da. Barrena askatzeko edo liskarretan hasteko gogoia baduzu, hori ez da komunikaziorako momentu ona.
- Komunikazioa hobea izanen da, besteak dioena aditzeko jarrera badugu: entzutea, solasgai dugun egoerak besteari eragiten dion sentimendua (tristura, poza, haserrea....) eta bere ikuspuntua ulertzen saiatzea.

Lagungarria da, halaber, besteari erakustea entzuten ari garela, ulertzen saiatzen ari garela.

- Gauzak ongi adierazten saiatu behar dugu. Horretarako, lehenbizi, gauzak argitu behar dira: zer gertatzen zaidan ezagutzea eta hori adieraztea baina solaskidea mindu gabe, konparazio batera: "gustatuko litzaidake zu nirekin paseatzera etortzea, horrela atseginagoa izanen baita" esan, eta ez "zu beti zeure kontuekin ari zara eta ez nauzu sekulan entenditzen".
- Guri gertatzen zaiguna, sentitzen duguna edo nahi duguna adieraztea da kontua, eta ez, gure ustez, besteari zer gertatzen zaion. Ez esan ezetz, baietz esan nahi badugu.

2. Pentsa ezazu nola aplikatu daitezkeen aholku horiek zure eguneroko bizitzan.

AISIALDIA ETA DENBORA LIBREA

Zahartzearekin, aisialdiaren erabilera aldatzen da, batez ere erretiroa hartu ondotik, denbora libre gehiago izaten baita.

Aisialdiaren erabilera

Denbora librearen puska bat oinarrizko eginbeharrek hartzen dute (zainketa pertsonala, etxeko lanak, eguneroko kudeaketak), beste puska bat lan ordainduak, horrelakorik bada oraindik, eta beste bat, azkenik, norberaren eginkizunetan ematen den denborak, hain juxtu orain aztertuko duguna.

Oro har, gure gauzetarako denbora atseginerako edo aspertzeko iturri izan daiteke, garapen pertsonalerako edo gizartean parte hartzeko bide eman dezake edo zer egin jakin ezean egonean egoteko...

Denbora libre hori ez da bakarrik jardueretarako erabili behar, baita gogoeta egiteko ere, atsedena hartzeko, inguruari begiratzeko, denbora joaten uzteko...

Aisialdia

Bizitzaren etapa honetan, oro har, aisialdia betetzeko jarduera (telebista, irakurtzea, kirolak, esku-lanak), modu (bakarrik, familiarekin, lagunekin, bikote-lagunarekin) eta behar ezberdinak daude. Batzuek nahiago dute atsedena hartu, beste batzuek jendearekin edo naturarekin bat egin, ariketa fisikoa egin, arte-sormena landu, gauzak ikasi...

Oro har, zahartzaroan atsegin handiagoa hartzen da aisialdiko jarduera horiek beste pertsona batzuekin batera egiten direnean eta jarduera bat baino gehiago egiten denean. Bereziki garrantzitsua da ariketa fisikoa egitea, ongi mantentzeko eta disfrutatzeko.

Adin honetan, gainera, hobeki dakigu zer nahi dugun, bizi-proiektua finkatuagoa dagoelako. Momentu egokia da nahi duguna egiteko, "zergatik" bizi garen pentsatu beharrean "zertarako" pentsatzen hasteko, aspaldiko afizioei ekiteko edo afizio berriak lantzeko, elkartasun proiektuetan parte hartzeko...

Ondoko galderak egitea lagungarria izan daiteke gure aisialdiaren inguruko erabakiak hartzeko: Zer egin nahi dut? Zertarako? Noiz eta nola egingen dut jarduera hori? Non egiten ahal dut? Horretarako zer baliabide daude?

Geure denbora eta geure tokiak izateko eskubidea dugu.

Gogoeta egiteko...



1. Zuretzako denborarik gordetzen al duzu?
2. Aisialdian, zer da inportantea zuretzat?
3. Gogora ekarri jarduera atsegin batzuk. Zentzumenak lantzeko lehen adierazi ditugunez gainera, badira beste batzuk:
 - Sormena lantzekoak (zura lantzea, pintura, gure oroitzapenak idaztea, jardueraren bat antolatzea.)
 - Komunikazioa bultzatzekoak (familiakoak bisitatu, mahai-jokoak, korroak, musu ematea...)
 - Eguneko berriak segitzekoak (egunkariak irakurri, telebista, irratia, auzokoekin hitz egin, hitzaldiak.)
 - Gure prestakuntza hobetzekoak (musika, liburuak, hitzaldiak, antzerkia.)
 - Denbora pasakoak eta ongi pasatzekoak (lehiaketak, telebista, erosketak, zinea, bildumak, bidaiak, ibilaldiak, eguzkia hartzea, solaskide atsegin batekin hitz egitea.)
 - Gauza berriak ezagutzekoak (bidaiatu, toki berriak ezagutu, igeri egiten ikasi, toki berrietatik paseatzea.)
 - Jarduera osasuntsuak (paseatu, mendira joan, yoga, gimnasia arina, igeriketa, otordu osasuntsu batekin disfrutatzea, lorategia zaintzea.)
 - Urkoari laguntzeko eta geure autoestima sendotzekoak (boluntario gisa, gizarte erakundeetan laguntzea, baratzeak, etxeko lan-konponketak, familiakoak zaintzea...)
 - Jarduera espiritual eta erlijiosoak (otoitz egitea, Jainkoarekin bat egitea, gogoeta egitea, geure buruari gauzen zergatikoak galdetzea.)

ZURE INGURUA ETA GIZARTE HARREMANAK

Batzuen iritziz, zahartzaroan bizitza sozialetik aparte egotea bilatzen du jendeak. Baina, benetan, gustuko jardueretan baino ez segitzea bilatzen omen dugu, alegia, nahitaez edo presioengatik egiten zirenak alde batera utzi eta eginkizun berri atseginetan hastea.

Etxea zahartzaroaren toki nagusia da. Baina, gizon-emakumeak gizaki sozialak gara bizialdi guztietan eta etxetik kanpoko bizitza soziala oso garrantzitsua da beti. Taldeetan eta elkarteetan parte hartzea lagungarria da norberaren eta gizartearen garapenerako.

Ingurune seguru eta atsegina

Zahartzean inguru seguruago eta atseginagoa behar izaten dugu. Ahal bada, ona da etxea zaharberritzeko lanak aprobetxatzea etxebizitzako segurtasuna hobetzeko (ikus Eritasunei aurea hartu eta eritasunak sendatzea izeneko atala), alegia, argiak, sartzeko bideak, igogailua...

Era berean, kaleko oztopo arkitektonikoak kentzen ari dira poliki-poliki eta baliabide gehiago eskaintzen dizkigute, nahiz eta oraindik asko dagoen egiteko.

Eskura ditugun baliabideak

Mota askotako jarduerak ditugu eskura: soziokulturalak, hezkuntzakoak, ibilaldiak, bisitak, bainuetxeak, ariketa fisikoa egitekoak.

Bestalde, boluntarioen taldeetan parte hartuz gero (elkarteak, GKEak.), gizartearentzat onuragarriak diren ekintzak garatzen lagunduko dugu.

Egoera jakin batzuetarako, laguntza emateko talde antolatuak dituzu.

Nafarroan, herritarrei laguntzeko hainbat zerbitzu publiko ditugu, beharra duzun guztietan erabiltzen ahal dituzunak (Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak, Emakumeari Laguntzeko Zentroak, Adimen Osasuneko Zentroak, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua...).

Adin honetara iritsita, badituzu bizitzeko zenbait alternatiba: etxean bizitzea, apartamentu babestuak, etxebizitza komunitarioak, zahar-etxeak... Badira beste alternatiba batzuk pertsonalagoak, edo kolektiboak (konponbide bateratua bilatzen duen jende-talde bat elkartzea).

Informazio gehiago nahi izanez gero, gizarte zerbitzuetara edo osasun etxera jo.

Bizi proiektuarekin segitzea

Nolanahi ere, nork bere bizimodua aukeratzea da kontua, nora jo nahi dugun erabakitzea, gure bizi proiektua etengabe garatuz eta zuzenduz (lehen Hemen eta orain... eta segi aurrera izeneko atalean komentatu dugun bezala). Ahalegindu gaitezen zahartzaroa gure neurrirra egindako bizialdia izan dadin, gainerako guztiak bezain pozgarria.

Gogoeta egiteko...



Borobil hau gazta-zatitxoek kutxa bat balitz bezala, adierazi zure bizitzako gairik inportanteenak (andrea/gizona, familia, zurea afizioak, lagunak, boluntario lana, baratzea.). Gai bakoitza gazta-zatitxo bat da, handiagoa edo txikiagoa, kentzen dizun denboraren arabera.

Orain, berriz, adierazi nola nahi zenukeen banatu zure denbora; hau da, zenbat denbora eman nahi zenukekeen gai bakoitzari (andrea/gizona, familia, zure afizioak, lagunak, boluntario lana, baratzea...).

Zer aldatu beharko zenuke bizitzan hori horrela izateko?
Gizartearen zein baliabide erabiltzen ahal duzu horretarako?

OSASUNEZ



ZAHARTU



Nafarroako Gobernua
Osasun Departamentua

NAFARROAKO OSASUN PUBLIKOAREN
OPI INSTITUTUA